

Iñaki Barcena Hinojal

PARTE HARTUZ / UPV-EHU ♦



INIGO AZKONA

Demokrazia +

KONTSIGNA xume hori, gauden krisi sakonetik irteteko bide edota errezeta egokitzat sumatzen dut. Demokrazia ez da gobernariak aukeratzeko partiduen sistema anitza soilik. Baina ezaugarri hori ez da huskeria, garrantzi handikoa baita munduko edozein lekutan jendeak nork agintzen duen aukeratzea. Dena den, demokrazia ez da liberalismoaren sinonimoa. Demokrazia liberal honen bertsio posible bat da, egun indartsuena, jakina.

Demokrazia liberalak, berez, herritar ugariren haserrea eta egoneza sortu ditu eta horiek aukera arriskutsu bati bidea ematen diote, boterearen erabilera autoritarioari, demokrazia alboratuz. Herri askotan, degenerazio antidemokratikoa- ren urratsak ari dira txalotzen, horregatik gizarte aske eta igualitarioagoa nahi dugunok, eredu politiko demokratikoa- goak defendatu beharrean gaude, autoritarismoari aurre eginez.

Francoren garaiko eskoletan, “demokrazia organiko” batean bizi ginela irakatsi ziguten. Familia, udalerrria, sindikatua eta mugimendu nazionalaren “organo” sendoetan finkaturik. Stalin, Mao edo Horneckerek ere, euren erregimenak “herri demokraziak” izendatu zituzten. Eta zoritxarrez, jende asko dago munduan sistema antidemokratiko eta bertikaletara itzultzeko gogoz, kontsumo material nahikorik ziurtatzen badiete. Hor dago koska eta arriskua!

Demokrazia ez da gobernariak aukeratzeko partiduen sistema anitza soilik. Baina garrantzi handikoa da munduko edozein lekutan jendeak nork agintzen duen aukeratzea

W. Churchillek zioenez, demokrazia gobernu sistema txarren artean hobereena da. Nire aburuz, zerbait gehiago da. Demokrazia gizarte harremanak ulertzeko modua da, eta arazo politikoen konponbidea izan daiteke. Norbanakoen bizimodua da, baita taldeena ere, non eskuzabaltasunaren, askatasunaren eta berdintasunaren

defentsarekin batera, aniztasunaren eta gutxiengoaren eskubideak bermatzen diren, parte-hartzea eta gatazken konponbide baketsuak babesteaz batera.

Chantal Mouffe-k dioenez, demokraziaren funtsa, ezarritako botereerikiko sumisioaren logikaren errefusapean datza, nahiz eta botere legalak eta gehiengoak izan, autoritateerikiko tentsionamendu iraunkorrean datza. Printzipioz, edozeinek, alkateak zein zientifikoak, liderrak edo apaizak ez du inongo eskubiderik arauak jartzeko eta besteak gobernatzen saiatzeko. Gobernariaren legimititatea, antagonista politikoen arteko lehia justuan irabazten da.

Eta inork ez, ez Estatuak ez partiduak, ezta mugimendu sozialek ere, ez dute arrazoirik *a priori*. Arrazoi demokratikoa argudioen kontraste librean eskuratzen da, gizartean eta iritzi publikoan posizio gehiengoak lortzen. Horregatik, demokrazia faltsukeria da gardentasunik eta herritarren parte-hartzerik gabe. ■



DANI BLANCO



Edu Zelaieta



IDAZLEA

Lehen gezurra

ATARITIK irteten den bakoitzean, lehen urratsa egin baino lehen, bi aldeetara begiratzen du beti; eta gero gora, zerura. Txikitant hala egiten ikasi omen zuen. Umetan hartzen diren ohiturak direla dio orain, akaso praktikan balio handirik ez dutenak: eurria egin behar baldin badu, berdin egingo du, gora begiratu ala ez.

Etxetik abiatu eta hamar minutu geroago urteko lehen gezur nabarmena esan diotelako sentsazioa du, kalean aspaldiko lagun batekin topo egindakoan: “Zuriñek harremana uztea erabaki zian, baina, tira, burua altxatzen hasia nauk jada. Makurrena pasatua diat”.

Makurrena oraindik pasatzeko duela bistan da. Haatik, errukiz-edo jokatze alde, (auto)engainua onartu dio begitartearen keinu herabe batez, isilik. Aspaldiko lagunak gezurretik nahi duela egia osatu antzeman du. Aise samar.

Urteko lehen asteetan desioak eta errealitateak nahaska ibili ohi zaizkigu, iraganaren balantzak eta geroaren aurreikuspenak. Okerrena urtearen bigarren zatirako pasatua izango dela adierazi du Raxoik. Aurpegira bota dioten urteko lehen gezur- raren meritua ere ez du bigarren honek. ■

